BAPOREA BILDUMA

# Pupi eta mamuak

## María Menéndez-Ponte

Irudiak: Javier Andrada



ikasmina

Argitalpen-zuzendaritza: Elsa Aguiar
Koordinatzailea: Paloma Muiña
Hizkuntza-aholkularitza: Ramon Olasagasti (Bakun S.L.)

© testuarena: María Menéndez-Ponte, 2008
© irudiena: Javier Andrada, 2008
© Ikasmina argitaletxea, 2011
Huertas de la Villa, 9
48007 Bilbo (Bizkaia)
www.grupo-sm.com

BEZEROENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA
Tel.: 902 121 323
Faxa: 902 241 222
Helbide elektronikoa: clientes@grupo-sm.com

Titularren baimenik gabe, debekatuta dago lan hau birsortzea, banatzea, publikoki hedatzea edota eraldatzea, Legeak aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Jo CEDROra (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa, www.cedro.org) lan honen zatiren bat fotokopiatzeko edo eskaneatzeko beharra baduzu.

*Ainoa, Ada eta Ali-ri,*
*Pupiren lagun onenei.*

Pupi Natxoren etxera joan da gaua pasatzera.

Amak argia itzali die, lotarako ordua da eta.



Gauak, ordea, zirrara asko ditu zain, lotan alferrik galtzeko.

Gainera, jakina da, bi lagun elkarrekin daudenean logura leihotik ateratzen dela ihesi.





–Ea nork egiten duen gorago jauzi! –jo dio erronka Natxok.

Eta biak jauzika hasi dira ohe gainean.

–Ni sabairaino iristen naiz! –egin du oihu Natxok.

–Eta ni *tximinoraino*! –deiadar Pupik.

–Kar-kar-kar! Tximinoraino! –hasi da Natxo algara batean.





Pupi ere barrez hasi da, Natxok kutsatuta, nahiz eta ez dakien tximinia eta tximinoa nahasi dituelako egiten duela barre Natxok.

Eta jauzika jarraitu dute biek,
gero eta gorago.

–Eta ni Ilargiraino iristen naiz
–oihukatu du Natxok.

–Eta ni *bizarretaraino* –Pupik,
gero eta ozenago.

–Kar-kar-kar!
Bizarretaraino!
–hasi da berriro
barrez Natxo.





Pupi ere, laguna barrez ikusita, algara batean lehertu da.

Ez daki, ordea, izarra eta bizarra nahasi dituelako egiten duela barre lagunak.